

XVIII

Literatur lehiaketa
haur eta gazteentzat
euskaraz

Certamen literario
infantil y juvenil
en euskera

2007



 Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAÍN
BARAÑAINGO UDALA



Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2007ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 215 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

Presidentea

Floren Luqui Iribarren

Alaitz DBH Institutuko irakasleak

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak

Iñaki Andueza

José Luis Ladrero

Olaia Erbiti

Ika Sahats euskaltegiko irakasleak

Aitziber Garralda

Aszen Argandoña

José Ramón Olano

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Arrosa del Burgo

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2007. En total se presentaron 215 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ONA

L.G. / D.L.

NA. 2515/2006



Aurkezpena

Euskaraz pentsatu, idatzi eta bizitzea.

Hitzaurrea jarraian irakurri ahalko dituzuen kontakizunen egileei zuzendua dago, batez ere. Lehenik eta behin, ESKERRAK eman nahi dizkiet, eskerrik asko kateatutako hizki hauek oparitzeagatik, alaitasun eta bizitasun hau emateagatik, eskerrik asko zuen irribarrearengatik eta guk ere irribarre egitea lortzeagatik.

Espero dut liburu hau den bezala gordetzea; altxorra baita, denborarekin balioa galtzen ez duena, irabazten baizik. Egunen batean, urte batzuk barru, kontakizun hauek irakurriko dituzue berriro eta irribarre egingo duzue berriro; lotsatu samarrak egingo duzue, akaso, baina, barnetik, harro-harro. Harro-harro, batere erraza ez delako paper zuri baten aurrean eseri eta hizkiz, sormenez betetzea; harro-harro, euskara, aspaldi-aspaldiko hizkuntza baina, aldi berean, gaur-gaurkoa, guztiona dena, egunetik egunera berreskuratzen ari delako zuena bezalako ekarpenei esker.

Euskaraz irakurri, idatzi, pentsatu eta bizitzea da zerbait nafar guztiok egin ezin izan duguna, euskara gure hizkuntza bada ere; erabili ezazue, beraz, faborez! Euskara maite dugunok beti eskertuko dizuegu hori.

Ez zarete etorkizuna soilik, oraina ere baitzarete, batez ere. "Bidegile, ez dago biderik; ibiltzean egiten da bidea".

Besarkada bero bat eta eskerrik asko berriro.

Presentación

Pensar, escribir y vivir en euskera.

Esta introducción va dirigida principalmente a los autores de los relatos que a continuación podéis leer; y en primer lugar quiero darles las GRACIAS, gracias por regalarnos estas letras encadenadas, esta alegría y vitalidad, gracias por vuestra sonrisa y por hacemos sonreír.

Espero que guardéis este libro como lo que es, un tesoro, que no pierde valor con el tiempo sino que lo aumenta. Un día, de aquí a unos años, volveréis a leer estos relatos y también sonreiréis, quizá un poco avergonzados pero espero que en vuestro interior orgullosos. Orgullosos y orgullosos porque no es fácil sentarse delante de una hoja en blanco y rellenarla de letras con creatividad, orgullosos y orgullosos por contribuir a que el euskera, una lengua milenaria pero a la vez moderna que es de todos y todas, se recupere día a día con aportaciones como la vuestra.

Leer, escribir, pensar y vivir en euskera es algo que no todos los navarros y navarras hemos podido hacer a pesar de ser nuestra lengua; hacedme el favor de utilizarla. Quienes amamos nuestra lengua siempre os lo agradeceremos.

No sólo sois el futuro, sino principalmente el presente. "Caminante no hay camino, se hace camino al andar".

Un abrazo sincero y gracias de nuevo.

Iz. / Fdo.

FLOREN LUQUI IRIBARREN

**BARAÑAINGO ALKATE-UDALBURUA
ALCALDE-PRESIDENTE DE BARAÑÁIN**





Sumendiko dragoia

Jose txo Larrayoz Olagüe

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila


IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin sumendi baten ondoan bizi zen neskatila bat bere txakurrarekin. Neskatala Maria deitzen zen eta txakurra Beltza. Bere txakurra egunero joaten zen sumendiaren tontorrera bere hezurarekin jolastera. Batzuetan Maria ere joaten zen Beltzarekin jolastera.

Egun batean txakurra beti bezala sumendiaren tontorrera igotzen hasi zen. Dragoi handi eta sendo bat atera zitzaion. Txakurra korrika hasi zen, baina alferrik. Dragoiak jan zuen. Neskatalak, txakurraren bila joan zenean, dragoiarekin topo egin zuen. Dragoia neskatila hiltzen saiatu zen sua botaz, baina ez zuen asmatu.

Bat-batean ehiztari bat agertu, eta dragoiari geziak bota eta hil egin zuen.

Azkenean ehiztaria Mariarekin ezkondu eta Beltza bezalako txakur bat erosi zuten.



Behi argia

Aritz Arteta Baños

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin zazpi urteko behi bat.

Behia oso lodia zen. Orban bat zuen sabelaren erdian. Zelaietan ibiltzea zuen gogoko eta bere lagunekin ibiltzea ere. Udan euliak bere buztanarekin uxatzen saiatzen zen baina alferrik.

Egun batean bere jabeak saltzea erabaki zuen esnerik ematen ez zuelako eta euliak denak zirikatzeko aritzen zirelako. Hurrengo egunean behia oso beldurtuta zegoen, eta joateko ordua iritsi baino lehen zerbait egin behar zuela erabaki zuen. Bazkal ondoren jabea lo geratu zen eta orduan hortik zeuden animaliei galdetzen hasi zitzaion, lehenengo sugeari:

- Zuk ba al dakizu zer egin behar dudan esnea emateko?
- Ba, nik ez dakit.
- Eta euliak kentzeko?



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Nik lagun bat dut, euliak zeuzkana, eta orain ez dauzka.
 - Nor da?
 - Hemendik gertu bizi den Txi zaldia da.
 - Esango al didazu non dagoen?
 - Bai, begira, hango zuhaitzari bira eman eta hor egongo da.
- Orduan zuhaitzari bira bira eman eta han zegoen jaten, eulirik gabe. Behiak galdetu zion zaldiari:
- Zuk al dakizu euliak kentzeko zer egin behar dudan?
 - Bai, esango dizut. Nik altxatu bezain pronto menda belarra jaten dut eta euliak ez dira niregana etortzen.
 - Oso ondo.
- Oraindik esnea egiteko zerbait lortu behar zuen.
- Ibili ondoren ardi bat topatu zuen. Behiak galdetu zion ardiari:
- Zuk badakizu zerbait esnea emateko?
 - Bai. Nik belar espezialak jaten ditut.
 - A, bai! Non?
 - Bai, laku horretan.
- Orduan belarrak jan, eta uretan sartu zen.
- Azkenik, jabearengana joan zen. Jabeak azken froga egin zion eta ontzi osoa bete zuen. Horrez geroztik egunero esne asko ematen zuen.

Txantxangorriaren negua

Iñaki Martínez Azpiroz

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Antzina, behi, ardi eta animalia guztiek eta belar eta arbolek berba egiten zutenean, bazen zuhaitz batean txantxangorri gorri, atsegin eta alai bat, beti zegoen kantari. Zuhaitz baten zuloan bizi zen bere arrautzekin.

Udazkena bukatu zen eta negua iritsi zen, txantxangorriaren etsairik handiena. Arrautzak hotz-hotzak zeuden. Txantxangorria oso hotz zegoen eta herrira joan zen janari eta berotasun bila. Herrira iritsi eta berehala etxe txiki eta bero batera sartu zen. Hor animalia batzuk topatu zituen: Franko, Dog, Ein-o, Hitz eta Arriskete.

Dog konturatu zen gure txoria kezkatuta zegoela:

- Zein da zure arazoa?
 - Nire arazoa negua da.
 - Zergatik?
 - Hotz egiten duelako eta nire arrautzek berotasuna behar dutelako.
 - Guk lagunduko dizugu.
 - Orduan, arrautzak herrira eraman zituzten. Elurra gogotik ari zuen baina animaliek ez zeukaten ikararik, barruan beroa egiten zuelako.
- Elurra urtzen hasi zen eta bero egiten zuen kalean, arrautzak hautsi ziren eta txito oso politak atera ziren.
- Hortik aurrera oso ongi bizi izan ziren.



Egia bada sakelan sar; gezurra bada atera ez dadila.

Neguko neska

Iranzu Alzueta Ayerra

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin neguko neska bat, Amaia izenekoa, txabolan bizi zena. Jendea izutzea gustatzen zitzaien, baina bakarrik neguan ateratzen da eta gauean.

Egun batean Amaia jendea izutzeroa atera zen. Jendea ez zen konturatzen, eta ohearen azpian ezkutatu zen. Izutzeko honela esaten zuen:

- Ja, ja, ja, nirekin eramango zaitut!!!

- Ama, ama, norbait hemen dago!! —oihukatu zuen mutikoak.

Baina inork ez zuen Amaia ikusten, ama eta mutikoa altxatu egin ziren beldurtuta.

Amaia ohe azpitik irten, eta alde egin zuen. Une horretan Amaia konturatu zen oso gaizki pasatu zuela mutikoak.

Azkenik Amaiak ikasi zuen jendea izutzea oso gaizki zegoela, eta ez zuen inoiz gehiago inor izutuko.



Ilargira bidaia

Amaia Silva Torán

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin mutiko bat ilargira iritsi nahi zuena, baina ez zekien nola. Bi egun pentsatzen eta pentsatzen igaro zuen baina ez zuen ideiarik. Mutikoak zazpi urte zeuzkan, eta bere izena Peio zen. Bat-batean ideia bat bururatu zitzaien, eskailera handi bat hartzea eta poliki-poliki igotzea. Hor zegoela, esan zuen:



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Ze handia eta ze polita! Zenbat zulo dauden! Ea zer dagoen barruan ikustera joango naiz. Zuloa iritsi zenean ura zegoen baina ur urdina, berdea, distiratsua zen. Uretan arrain hegalariai zeuden.

Arrain batek salto egin zuen eta mutikoari ipurdian zizta egin zion. Orduan eskua ipurdian jarri zuen eta arraina hartu. Peio poliki-poliki eskailetatik jaitzi zen. Etxean zegoela esan zuen amak:

- Arrain hori non hartu duzu?

- Ilargian hartu dut –erantzun zion Peiok.

- Joango naiz sukaldara ontzi baten bila.

Sukaldean zegoela ontzia hartu zuen eta Peiori eman zion. Peiok arraina bere logelan utzi zuen eta gauero Peiok liburu bat irakurtzen zuenean marrazkiak arrainari erakusten zizkion.

Hurrengo egun batean esan zuen Peiok:

- Aita, goazen mendiak ikustera.

- Bale –esan zuen aitak.

Mendian zeudela mutikoak zeruari begiratu zion eta ilargia ikusi zuenean esan zion ilargiari:

- Agur, ilargi, agur! Beste egun batean bisita egingo dizut.

Nekazari gorra

Maialen Irisarri Ezkurra

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin nekazari bat diskotekara joaten zena. Hainbeste diskotekatara joan zen pixkanaka-pixkanaka entzumena galdu zuela.

Egunero joaten ziren ezagunak bera bisitatzera, baina berak ez zuenez ezer entzuten esaten zuen:

- E, e, zer diozue?

Amak, bisitatzera joaten zitzaionean, harrituta esaten zion:

- Zer gertatzen zaizu?

Nekazariak berriz esan zuen:

- E, e, zer diozu?

Orduan, ama kezkatu egin zen, eta bere senarrari deitu zion kontatzeko gertatzen zena. Ondoren, espezialistarengana eraman zuten eta espezialistak esan zuen:

- Gor dago.

Nekazariaren gurasoek esan zuten:

- Eta hori sendatzen ahal da?

Espezialistak esan zuen:

- Bai, baina pastilak hartu beharko ditu.

Pastilak hartu, eta orduan sendatu zen eta ez zen gehiago diskotekara joan bazekielako zer gertatu behar zitzaion berriro, eta hortik aurrera zoriontsua izan zen nekazaria, lanean bere sorotan. Egia ala gezurra? Begi bien artean sudurra.



Franen arazoa

Garazi Retegi Goñi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Fran deitzen zen ume bat. Fran potoloa eta begi urdina da, gainera, gutxi gorabehera agian zure urteak izango ditu. 10 urte ditu.

Egun batean, Fran eta bere ama Iruñera aldatu ziren. Franek ingelesez hitz egiten zuen, horrez gain, ikastola berrian zailtasun handiak ditu, besteak ezin dituelako ulertu. Franek lagunak izan nahi ditu baina inork ez du ulertzen eta bestalde lodikote deitzen dute. Franek egun batzuk daramatza ikastolan eta euskaraz hitz egiten ikasi du. Konturatu da besteek jipoitzen dutela. Bere amarengana joan da. Bere amak esan dio:

- Baina, maitia, ez du inporta besteek esaten dutena, inportanteena da zuk nola ikusten duzun zeure burua!

Hurrengo egunean, eskolara joan zenean kontrol bat zeukaten. Eman ziotenean, ikusi zuen ez zuela gairiditu. Gelakoek, andereñoa joan zenean, kontrola kendu zioten, eta barrezka hasi ziren denak ez zuelako gairiditu. Haserre, etxera joan zen, eta amari esan zion:

- Ama, gelakoak kontrola ikusita barrezka hasi dira!

- Baina, gaur kontrola zeneukaten? —esan zion amak.

Orduan konturatu zen ez zuela ezer esan behar.

Amak esan zion kontrola erakusteko. Erakutsi zionean esan zion amak:

-Fran, baina gaizki ateratzeagatik ez duzu kontrola gorde behar!

Fran negarrez hasi da. Bere amak lasaitu duenean Fran bere logelara joan da. Fran pentsakor jarri da une batean, eta pentsatu du:

- Ba, lodikote deitzen badidate, dietan jarriko naiz!

Egun bat pasa eta gero, ez zeukaten eskolarik, eta dietan hasi zen. Jateko ordua zenean, ez zuen ia ezer jan, baina, amak ikusi zuenean esan zion:

- Fran, baina jan behar duzu bestela hil zaitezke!

Franek jan gabe jarraitzen zuen, ia aste bete darama dieta egiten.

Bi egun pasa eta gero, Fran gehiegi argaldu da, eta ospitalera eraman dute.

Ospitalean ahal duten guztia egiten dute baina esan diote bost egun egon beharko duela ospitalean.

Bost egun pasa ondoren, Fran ospitaletik atera da.

Berriz lodi jarri da. Eskolara joan zenean neska berri bat zegoen Estibaliz izenekoa.

Hortik aurrera lagunak izan dira eta konturatu da inportanteena nola zaren dela.

Ipuin hau pozik bukatu da.

Bartolo txakur bakartia

Oihane Lasheras Zapata

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso



Bazen behin txakur bat. Barañainen bizi zen eta zimur asko zituen. Baina plazara joaten zen egunero. Beste txakurrek barre egiten zioten:

- Ze, zahartxo, ezin duzu egunkaria ekarri? Ja, ja, ja!





XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Eta besteak haserratuta:

- Ez ba! Lan asko egin dudalako daukat festa!

Eta Bartolo gaixoa negar eginez etxera joan zen.

Baina, hurrengo egunean, txakur txiki bat etorri zen, Entzi zuen izena. Bera Bartoloren laguna zen, eta asko laguntzen zion. Eta esaten zion beti:

- Bartolo, nahiz eta zimurrak edo zerbait izan lagun ona izatea garrantzitsuena da, ez polita eta harroa! Oroitu!

- Bartolo ez zegoen konforme, berak polita izan nahi zuen. Baina ezin. Orduan Entzik tranpa bat jarri zion Bartolori. Plana zen txakur harro bat arriskuan jartzea eta Bartolok salbatzea, horren bidez txakur harroak ikus zezan lagun ona zela. Orduan txakur harro bati esan zion:

- Etorriko al zara jostatzera etxe orratz baten gainera?

Eta besteak:

- Bai, noski, lagun!



Orduan, igo zirenean Entzik txakur harroa bultzatu egin zuen eta esku batekin geratu zen gaixoa.

Entzi Bartoloren bila joan zen eta Bartolok berria jakinda kable bati heldu, eta balantzeatu zen.

Orduan Bartolok txakur harroa salbatu eta lurrera eraman zuen. Eta txakur harroak harrituta esan zion:

- Zuk salbatu nauzu! Eskerrik asko!

Eta hortik aurrera denak elkarrekin egon dira.



Lili eta Bobi bere lapitza

Maite Urra Gorospe

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Baziren behin Lili izeneko neska bat eta Bobi bere lapitza. Bobi magikoa zen baina Lilik ez zekien, hala ere beti berarekin eramaten zuen. Lilik lapitz hura asko maite zuen oso grazioso zelako eta bere lagun minenak oparitu ziolako. Bobik begi handiak, besoak eta hankak ere zituen, horregatik Lilik hainbeste maite zuen.

Egun batean Liliri bere lagun batek lapitza eskatu zion, baina ez zion utzi apurtuko zuela edo horrelako zerbait egingo ziola uste zuelako. Horregatik ia, ia inork ez zion gauzarik uzten. Beste egun batean Lili konturatu zen Bobi magikoa zela eta, Lilik, alferra zenez, Bobiri gauza guztiak egitea eskatzen zion. Marrazkiak egin behar zituenean, Bobi oso pozik jartzen zen. Baina idaztea ez zitzaion gustatzen, asko aspertzen zen, eta bihurrikeriak egiten zituen, adibidez, momentu batean Liliri aurpegia pailazoz, katzuz, lehoiz edo beste edozein gauzaz margotzen zion. Lilik batzuetan, Bobiz aspertuta, bere estutxean sartzen zuen, baina Bobik beti irtetea lortzen zuen eta gero mahaiz mahai



salto egiten zuen Liliren lagunei ere bromak eginez. Gau batean Lilik Bobirekin amestu zuen, amets horretan Bobik arrisku batetik bizitza salbatzen zion eta Lilik benetan gertatzea nahi zuen. Hurrengo egunean Bobiri bere ametsa egi bihurtzeko eskatu zion, eta Bobik egin.

Goiz horretan Lili konturatu zen Bobi gero eta txikiagoa zela. Etxera iritsi zenean bere kaxoian sartu zuen.

Bobi, kaxoian urteak egon ondoren, Lilik aurkitu zuen eta bere ilobari oparitu zion. Bere ilobarekin gertaera berdina gertatu zen, eta Liliren ilobak bere ilobari... eta horrela lapitzak jarraitu zuen haurren amets onak egi bihurtzen bukatu zen arte.

Arranoa eta saguzarra

Ainhoa Pérez Uterga

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Orain dela mila urte, egun ilun batetan gaztelu batean gertatu zen. Arranoa beltza eta handia zen baina saguzarra beltza eta txikia zen. Biak elkarrekin bizi ziren.

Egun batean, gazteluan haserretu ziren biak logela berdina nahi zutelako. Logela oso polita zen: paretak arrosak, teilatua urdina, ohea lastozkoa eta horia zen. Logela oso kolore desberdinekin egina zegoen. Bitxia, baietz? Biek borrokan jarraitu zuten, logela osoa hankaz gora jarri zuten. Eta orduan, esan zuen arranoak:

- Alferrikakoa da egin duguna.
- Ni denbora batez Japonian geratuko naiz.
- Eta ni Parisen geratuko naiz.

Orduan biak hegazkineko txartelak hartzera joan ziren aireportura.

Biak askotan bata bestearekin oroitzen ziren. Orduan egun batean telefonotik deitu zion saguzarrak arranoari eta esan zion:

- Egunero zutaz oroitzen naiz! Etorri al zaitzke Japoniara?
- Bale, joango naiz, baina tratu batekin, eta tratua da biak berriro elkarrekin bizitzea gazteluan.
- Eta oheak lastozkoak jarriko ditugu.
- Baina gelak kolore askotakoak jarriko ditugu, ezta?
- Bai, kolore askotakoak.

Ezustean esan zuen arranoak:

- Beno, uzten zaitut, logurea daukat eta.
- Agur!
- Bai, agur!

Hilabete bat pasa eta gero arranoa hegazkineko txartelen bila joan zen. Japoniara heldu zen eta saguzarrak arranoa ikusi zuen, eta paretaren kontra jo zen. Orduan arranoak lagundu zion saguzarrari hegoa konpontzen. Eta biak gaztelura joan ziren bizitzera.

Egia ala gezurra bi begien artean sudurra!



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Satu-Saturno

Neskutz Amondarain Agirre

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 4° curso

Orain dela urte asko, unibertsoan, Satu-Saturno izeneko planeta bat zegoen. Oso ederra: bere burua horia eta laranja kolorekoa, bere eraztuna kolore pilakoa eta gainera beti oso distiratsu zegoen.

Egun batean planeta guztiak kokoteraino zeuden: Pluton, Jupiter, Urano, Neptuno... zeren beti "txuleatzen" zegoen: ni naiz politena, ni naiz ederrena... ordu batzuk pasa eta gero meteorito batek bere eraztuna apurtu zuen eta besteek esaten zuten:

- A, a, a! Satu-Saturno biluzik dago!

- Ja, ja, ja! A ze itsusia dagoen... ja, ja, ja...

Saturno triste etxera joan zen. Eta esan zuen:

- Zergatik pasa behar zait beti hau niri?

Goizean Saturno planeten bila joan zen ea beraiekin jolas egiten ahal zuen. Eta denek esaten zuten:

- Badator munduko planetarik itsusiena, ja, ja, ja...

- Hain itsusi nago?

- Ba, bai, ja, ja, ja...

- Lagunok, barkatu mesedez.

- Benetan ari zara?

- Baietz! Barkatu.

- Bale!

- Eskerrik asko, baina ez esan biluzik nagoela.

- Bale!

Eta orain Satu-Saturno lagunekin jolasten da eta ez diote barrerik egiten. Eta Saturnori eraztuna atera zaio.

Maria marigorringoa

Ainara Balen Fuentes

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 4° curso

Bazen behin baso txiki batean Maria izeneko marigorringo bat, baina marigorringo horrek ez zuen mantxarik eta beste marigorringoek ez zuten berarekin jolasten. Baina berak bazekien egiten gauza asko, eta oso politak, baina berak buruan bakarrik mantxak izan nahi zituen.

Egun batean mutil batek Maria hartu eta etxera eraman zuen. Bere etxean ikusi zuenean mantxarik ez zeukala, errotulagailu batez mantxak marraztu zituen eta Mariak ihes egin zuen basorantz. Basoan denak Mariari begiratzeko geratzen ziren, baina bat-batean euria hasi zuen eta mantxak joan zitzaizkion, eta esan zuen:

- Nire mantxak, nire mantxak!

Bere amak esan zion:


- Baina ez negar egin, zu oso berezia zara eta!

Eta Maria, hori entzun zuenean, barrez eta hegan hasi zen. Barrez eta kantari, beste marigorringoei bere gauza harrigarriak erakutsiz joan zen.

XVIII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Hori eta gero, famatua egin zen mundu osoan, bere txiribueletak egiten airean, eta bere hegoak kolorez aldatzen. Hortik aurrera oso pozik bizi izan zen.



Amets bat

Ane Ardaiz Arriazu

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin neskatxa bat Rakel deitzen zena, eta beti bere aitonaren etxera joaten zenean istorioak kontatzen zizkion. Lo egiten zuenean istorio horretan pentsatzen zuen. Egun batean, aitonaren etxera zihoanean, aitonarekin topo egin zuen, aitona ere etxera zihoala; elkarrekin abiatu ziren etxera. Bertan, aitonak istorioa kontatu eta gero, eskutitz bat eman zion bere amarentzat. Etxeranzko bidetik zihoala, etengabe galdetzen zion bere buruari:

- Zer jarriko du eskutitz honetan?

Etxera heldu bezain laster, Rakelek bere amari eskutitza eman zion. Gaua egin zenean, lotara joan eta ametsetan hasi zen:

Rakel bere aitonarekin Saloun zegoen. Han gauza asko egin behar izan zituen. Lehenengo hondartzara joan. Bertan igeri egin, baita surf egin ere, hareazko gazteluak, eta beste hainbat gauza oso dibertigarriak. Geroago bapo-bapo jatera joan ziren. Taberna dotore batean zeudelarik, pertsona batek lurtean zegoen botoi bati eman eta zulo batera erori ziren.

"Non ote gaude?" galdetzen zioten elkarri. Baina ze axola zuen! Leku hura benetan ederra eta interesgarria zen.

Zuhaitzak gozokiz eginak zeuden, itsasoa txokolate beroa zen, harea azukrea, zuhaitzen hostoak gominola berdeak, a! Eta eguzkia natillez eginda zegoen.

- Ze gozoa! -oihukatu zuen Rakelek kotoi gozoz eginda zeuden hodeiak dastatzen zituen bitartean.

- Non ote dago hemendik irteteko atea? -galdetu zuen aitonak.

Erantzunik ez. Bazirudien erantzun faltak ez zuela inor larritzen. Denak gustura zeuden, Rakel bereziki.

- Hau magikoa da! -oihukatzen zuen behin eta berriz Rakelek. Minutu batzuk pasa eta gero galdetu zion aitonari:

- Aitona, hondartzara joan naiteke eguzkia hartzera?

Aitonak baiezkoa eman zion, baina kontu handiz ibiltzeko esan zion.

- Badakizu hondartza oso arriskutsua dela! -errepikatu zion berriz ere aitonak.

- Lasai, aitona, kontu handiz ibiliko naiz. Ez zaitetz larritu! -erantzun zion Rakelek besarkada eta



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

musu handi bat ematen zizkion bitartean.

- Toalla hartu duzu? –aitonak.

- Ez, ahaztu egin zait –erantzun zion Rakelek.

- Zuhaitzaren atzean dago, laztana –esan zuen aitonak.

Rakelek toalla hartu, eta hondartzara joan zen. Eguzkiak gogor jotzen zuen eta uretara sartu zen freskatzeko asmoz. Denbora luzez egon zen uretan. Bertatik atera zenean toallan etzan zen lehortzeko. Bat-batean, olagarro batek neskatxa harrapatu eta ur azpira eraman zuen. Neska, beldurtuta, oihuka hasi zen.

Aitona ahalik eta azkarren heldu zen. Ez zekien zer egin, beldurtuta baitzegoen. Ez zuen denbora gehiegirik, bere biloba arriskuan zegoen eta. Orduan oroitu zen ura gozoa zela. Beraz, gatza uretara botatzen bazuen, olagarroa hilko zen. Halaxe egin zuen eta baita Rakel uretatik atera ere. Bizirik zegoen, nahiz izugarrizko sustoa pasa. Elkar besarkatu zioten pozaren pozez.

Geroago, Rakel toallaren bila zihoala, leku horretatik irteteko atea aurkitu zuen. Aitonari esan zion eta bertatik atera behar zirenean... Rakel esnatu zen.

- Esnatu zaitetz, maitia, ikastolara joan behar duzu eta –esan zion amak.

- Bai, ama –erantzun zuen erdi lotan neskatxa gazteak.

- Aizu, ama, esango al zenidake zer jartzen zuen aitonak emandako eskutitzean?

- Aitona Saloura joan behar dela.

- Ze nolako jeta! –ni ere gustura joango nintzateke.

Barazkipolis

Julen Martínez Azpiroz

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin barazkiak gorroto zituen ume bat. Bere izena Xabier zen. Sei urteko mutiko ile hori txiki bat zen, nahiz eta lagunek "karniboro" ezizenez deitzen zuten.

Egun batean karnibororen amak piper eta eukalipto entsalada prestatu zion bazkaltzeko, nahiz eta Xabier protestaka egon:

- Ama!! Ez dut zerrikeria hau jango!! –protesta egin zuen Xabierrek.

- Haragia bakarrik janez gero txikia geratuko zara –amak.

- Gozokiak ere badaude!

- Baina horiek ez dute elikaduran parte hartzen.

Eta Xabierrek hozkatu zuen lehen eukalipto zatiak zurrumbilo bat sortu eta karniboro xurgatu zuen. Bi ordu jira biraka eman ostean mundu bitxi batera heldu zen. Bertan barazki itxurako martziano batzuk bizi ziren. Karniboro konturatu ez bazen ere, sudur, begi eta ahoa zeuzkan tomate xelebrea bat begira zeukan eta hizketan hasi zitzaion:

- Ze "mouz"? "Nie" izena Tomate duk. Eta hi nola deitzen haiz?

- N... nire izena X... X... Xabier da.

- Gose al zara? Ezagutzen dut bost izarretako jatetxe bat.

- Bai! Joan nahi dut.

Biak luxuzko jatetxera joan ziren. Karnibororen txarrerako, dena barazkiz beteta zegoen. Ura eta gatz mineralak hartzen ari zen Tomate. Xabier laguna zen eta Tomatek bere etxean lo egitera gonbidatu zuen. Karniboro, baso bat ur edan ondoren, letxugako ohean etzan zen. Ez zuen begirik bildu, Tomatek Baratxuri eta Azenario gonbidatu zituelako eta diskoteka muntatu zuelako. Azkenean isildu egin ziren.

XVIII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Karniborok lasai egin zuen lo nahiz eta goizeko zortziak laurden gutxi izan. Arratsaldeko bostak eta hogeita hamarreen esnatu zen.

Esnatu bezain laster Tomateren bila jaitsi zen baina bertan butanozalea zegoen:

- Ikusi al duzu tomate bat?

- Bai. Duela gutxi Benzoren etxera joan da. Bi kale haruntzago bizi da.

- Mila esker.

Karniboro lasterka joan zen Benzoren (Tomateren lagun bat) etxera, baina jadanik ez zegoen han. Orduan Azenario eta Baratxuriren etxean egongo zela pentsatu zuen. Han ere ez zegoen. Orduan Tomatek gogokoen zuen lekuan: jatetxean! Baita asmatu ere. Hantxe zegoen ura eta gatz mineralak hartzen. Orduan Tomatek esan zion:

- Nik uste gutxienez entsalada bat jan beharko zenukeela.

- Zergatik?

- Zure mundura itzultzeko modu bakarra duzulako eta bide batez barazkiak haragia bezain gustuko izango dituzu.

Karniborori adore eman eta gero, Karniborok entsalada jan zuen. Orduan lehengo zurrumbilo berdina agertu eta bere mundura itzuli zen. Iritsi bezain laster barazkiak eskatu zizkion bere amari.

Handik aurrera, barazkiak gustuko izan zituen eta lagunek "herbiboro" ezizenez deitu zuten.

Duk ahatea

Ainara Ieregi Aranburu

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Udako egunik beroenean Duk ahateak bere etxeko atea ireki eta ohiko txangoa egitera abiatu behar zuenean...AAAA! Sekulako oihua entzun zuen.

Beste edozein ahate, korrika, laguntzera joan zen. Baina Duk ez zen ahate arrunta eta etxean sartu egin zen. Noski, gero gauean ezin lorik egin gelditu zen. "Nork egingo zuen oihu?" galdetzen zion bere buruari loak hartu arte. Hurrengo goizean, berdin gertatu zen: atea irekitzean oihu bat entzun zuen, eta etxean sartu zen. Arratsaldean, auzokoei aurreko bi egunetan zerbait entzun ote zuten galdetzea erabaki zuen. Lehenik azkonarrari galdetu zion eta ondoren trikuari, ardiari, oreinari, txantxangorriari, beleari, otsoari, hartzari, basakatuari, azeriari, erbiari, katagorriari, saguari, sugandilari... Eta inork ez zuen ezer entzun. "Arraroa ezta?" pentsatu zuen Dukek.





XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Hurrengo lau goizetan gertatu zitzaien oihuarena. "Eta norbaitek, beldurtia naizela jakinda, ez bazu ni kalera ateratzea nahi?" galdetzen zion bere buruari. "Ez. Beste batzuek entzungo zuketean" erantzuten zuen. Gero eta kezkatuagoa zegoenez, hurrengo oihua entzuterakoan, oihua ateratzen zen lekura joango zela pentsatu zuen. Berak bakarrik imajinatuko balu psikiatra batengana joatea erabakiko luke.

Baina zoritxarrez hurrengo goizean ez zuen oihurik entzun ezta hurrengoan eta hurrengoan ere. Bi hilabete pasa ziren oihu madarikatua entzun gabe. Hala ere, gau hartan, goizeko laurak aldera, oihu izugarria entzun zuen. Salto batez jaiki zen Duk. Linterna hartu zuen, eta kalera atera zen. Linterna piztu, eta inguruetan bilatzen hasi zen. Bat-batean argi berde bat ikusi zuen urrunean, eta hara joatea erabaki zuen. Ordu laurden bat eman zuen ibiltzen argi berdearen atzetik. Gaztelu zahar batera iritsi zen. Gaztelua nahiko handia zen, muino batean kokatuta zegoen, eta beheko aldean ur putzu handiak baziren gaztelua inguratuz. Zubi luze bat zeharkatu zuen eta gazteluko atetzarreen jo zuen. Ez zion inork ireki, hortaz, bi aldiz pentsatu gabe, leiho batetik sartu zen. Barruan hotz handia egiten zuen, dena ilun zegoen. Argi bakarrak linternarena eta ate baten azpitik zetorren argi berdea ziren. Beldurtuta, atea ireki zuen eta... Gela erraldoia zen. Gela ia hutsik zegoen. Mahai txiki bat eta aulkitxo bat besterik ez zegoen. Mahai gainean argi berdea ematen zuen kandela bat zegoen. Aulkitxo gainean, manta gainean, gizon bat zegoen, aurpegia oihal zuri batekin estalita zuena.



Ahots ozenez agurtu zuen Duk:

- Kaixo, Puriduk (hori baitzen bere benetako izena), denbora luzez egon naiz zure zain. Bost minututan egon ziren isilik. Duk harrিতa zegoen. Azkenean zapidun gizonak pixka bat nazkatuta esan zion:

- Ez didazu galdetu behar zergatik dakidan zure izena? Eta ez didazu galdetu behar zergatik ematen duen argi berdea kandela honek?

Dukek burua alde batera eta bestera mugituz ezezkoa egin zuen.

- Ez didazu ezer galdetu behar?

- Ez -erantzun zion azkenean Dukek.

Orduan gizona altxatu zen, kandela jaso eta... AAAAA! Egin zuen oihu.

Dukek belarriak estali zituen. Baina, oihua bukatzean, Duk konturatu zen gela diskoteka itxura hartua zegoela. Eta bera nahi gabe dantzan hasi zen. Aurrera, atzera, ezkerrera, eskuinera... Gizonak esan zion:

- Egin galderaren bat edo betirako egongo zara dantzan. Kar, kar, kar!!

- Zenbat... dira... berrehun... bider seiehun?

- Ehun eta hogeita mila!

- Eh... zenbat... ahateren hanka daude... 25 ahatedun baserri batean?

- 50! Kar, kar, kar...

XVIII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Horrela egon zen Duk gaixoa denbora luzean, galdeka eta galdeka eta gizonak den denak erantzuten zituen.

- Azkarrena naiz! –esaten zuen– Egidazu nik erantzuterik ez dudan galdera bat eta libre utziko zaitut! –esan zion.

Azkenik:

- Ze koloretakoa zen Santiagoren zaldi zuria?

- Morea... ez, e... beltza! Ez dakit!! -erantzun zuen gizonak.

Ke berde batek dena estali zuen eta...

“DUK ESNATU!!!” Begiak irekitzerakoan han ikusi zuen emaztearen aurpegia. Dena ametsa izan zen!! Baina... non zegoen linterna?

Dena dantzan

Ainara Leceta Marañón

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Egun batean ni liburutegira joan nintzen liburu bat hartzera; liburu horrek “Bertsoekin dantzan” izenburua zeukan.

Irakurtzen hasi nintzenean, gauza arraro batzuk gertatzen hasi zitzaizkidan: lehenengo, kasetea piztu zen; nik pentsatzen nuen agian konturatu gabe piztu nuela. Irakurtzen jarraitu eta kasetea itzali egin zen. Geroxeago nire jostailuak dantzan jarri ziren, agian, imaginario hutsa izan zen. Azkenaurreko orrialdea irakurtzean, margolanetako marrazkiak, oheko mantaren marrazkiak eta arkatza eta borragoma dantzan hasi ziren. Nire ustez, logure asko neukan, horregatik liburua itxi eta lotara sartu nintzen. Ametsa izan nuen: nire logelako guzti-guztia dantzan hasten zela. Hurrengo egunean eskolara joan ondoren, gaua iristerakoan, liburua bukatzeko azken bertsoa irakurtzen ari nintzela, dena dantzan hasi zen: zapatak, margolariak, jostailuak, liburuak... irakurtzen jarraitu nuen liburua bukatu arte. Nire logelak dantzan jarraitzen zuen. Ezin nuen sinetsi! Nire ametsean bezala gertatzen zen. Badaezpada begiak kliskatu eta igurtzi egin nituen, baina logelak dantzan jarraitzen zuen. Logela gelditzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa, amore emanez ohean sartu nintzen. Goiza iristean ia ia ez nuen lorik egin. Baina beste arazo larriago bat neukan: logelak dantzan jarraitzen zuen. Amari esan nion baina ez zuen sinesten, imaginarioa zela esaten zidan, aitak ere ez zuen sinesten, anaiak ezta ere. Eskolara joateko garaia zen eta iristerakoan lagunei kontatu nien, haiak ere ez zuten sinesten, gainera nire kontura barrez lehertzen ziren.

Eskola bukatzerakoan, egun guztietan bezala, etxera joan nintzen. Kokoteraino nengoen, hau da, nazkatuta nengoen: ezin nuen lorik egin, ezin nuen etxeko lanik egin, ezin nuen, ezin nuen...

Azkenik liburua hartu eta lurrera bota nuen esanez:

- “Kaben” liburutegitik hartutako “Bertsoekin dantzan” liburua!

Orduantxe gelditu zen logela dantza egiteaz. Biharamuna jai zen, eta liburua liburutegira eramateko eguna ere. Hango laguntzaileari inork gehiago ez irakurtzeko esan nion, madarikatuta eta sorginduta zegoela esanez. Sinetsi zuen bakarra izan zen berak ere irakurri zuelako.

Nik ez dakit nola gelditu nuen logela dantza egiteaz, baina eskerrak, bestela zerbait jazoko zitzaion nire bihotzari. Hori gertatu zenetik inoiz ez dut liburutegitik liburu bat hartu.



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Julen eta bere lagunak basoan galduta

Jokin Jiménez Eneriz

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Duela bi urte Julen deitutako mutil bat bizi zen. Bostetan Mikel, Asier, Gaizka eta Ibanekin plazan bizikletarekin geratu zen eta basoan etxola bat egin nahi zuten, baina galdu egin ziren.

Asko eta asko barneratu ziren. Eta, hor; baso erdian erabaki zuten etxola egitea; baina ez zekiten galdu zirela, noski.

Egurra motxiletan prestatuta zeramaten. Asier eta Gaizka paretak egiten hasi ziren, Mikel eta Julen teilatua egiten ari ziren eta, Iban, pantxo-pantxo, txorizo bokata jaten lurrean eserita; baina, gero, lanean serio-serio hasi zen. Bukatu eta gero, etxera joan behar zutenean, konturatu ziren galdu zirela eta orduan etxolan sartu ziren.

Julenek, bere mobilarekin, aitari deitu eta dena azaldu zion eta aitak esan zion hortik ez mugitze-ko bere bila laster joan behar zuela.

Orduan Julenen aitak poliziei deitu zien eta dena kontatu zien. Bigun agentea, Julen bilatzeko gogorik ez zuenez, pizza bat jatera joan zen, eta Luri kasua eman zion. Lu agenteak Sobras txakurra hartu eta txakurrari eskatu zion Julen aurkitzeko. Orduan, basoan barneratu zirenean, agente Sobrasek droga aurkitu zuen. Luk esan zion oso ongi zegoela baina Julen aurkitzeko eta azkenean aurkitu zuen onik.

Quimby alkateak esan zuen berriz inor ez galtzeko basoko zuhaitz guztiak moztu behar zituela, eta dena ongi bukatu zen natura izan ezik.

Castri inspektorearen kasua

Asier Izkue Daroca

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

1902an 22 urteko mutiko bat famatu egin zen bere ikasketak bukatu zituenean. Baina ez zen izan oso azkarra matematikarako buru ona zeukalako, ez, berak bakarrik bere arkatzarekin eta agendarekin kasu zail bat argitaratu zuelako baizik: bere agendan jartzen duen bezala "Nor da lapurra?" izeneko kasua. Geroago kontatuko dizuet, baina egunkari zahar batetik edo antzekotik ez! Bere kasuen liburuek dakarten bezala kontatuko dizuet. Hau berak kontatuko balu bezala kontatuko dut... Hortxe doa!:

Kaixo, ni Castri naiz eta orain nik ikertu nuen lehen kasua kontatuko dut. Orain zuk irakurtzen duzunean, seguru aski urte asko igaro izanen dira eta ni hilda izango naiz. Nire kasua Barañain herriko Udaletxean hasten da, alkateak ni deitu eta gero. Alkatea oso urduri zegoela zirudien eta, oso garbi, nire lehen kasua izango zena azaldu zidan:

- Castri, zure espedientea ikusi eta gero deitu zaitut. Barañainen lapur bat dago eta nik nahi dudana da zuk nor den argitzea.

- Eta nola egingo dut nik hori, nik bakarrik 22 urte baldin badituz? –galdetu nion nik alkateari.

Berak agenda bat eman zidan... geroago arkatz bat, horrela jarraituz:

- Eman dizudanarekin eta zure burmuinak astinduz argituko duzu kasu hau. Zorte handia izan eta gogoz pentsatu. Agur Castri inspektorea!

Ni Udaletxetik atera nintzen eta bat-batean alkateak atzetik deitu ninduen; eskuan zekarren paperean eman zizkidan gomendioak heldu ziren. Nik papera jaso nuen, eta etxeratu nintzen.



Paperean gauza hauek jartzen zituen:

1- Lapurrak zein tokitan lapurtu zuen.

2- Zer lapurtu zuen.

3- Lapurtu zituen etxeen izenak edo helbideak.

Ni, apunteak hartzeko eta arrastoak ikusteko, lehenengo lapurtu zuten lekuetara joan nintzen. Bi aste pasatu nituen ahal nuena egiten lapurra nor zen jakiteko, baina agenda behin eta berriro irakurri eta ezer ez!! Amorruez eginda azkeneko aldiz nire apunteak irakurri nituen, eta oraingoan bai, oso garbi ikusi nuen dena. Lapurra Antton zen, Barañaingo biztanlea. Korrika, Udaletxera joan nintzen, baina bat-batean Antton atera zen denda batetik, nire atzetik. Harri bat bota zidan eta, hankan eman eta gero, erori egin nintzen. Anttonek tratu bat proposatu zidan:

- Castri, zuk inori ez badiozu esaten ni lapurra naizela, lapurtutako diru guztia emango dizut eta beste bat izan dela lapurra esango diozu alkateari.

Nik ezetza eman nion. Baina bera, oso haserre, joka hasi zitzaidan. Konorterik gabe utzi ninduen. Ni bi ordu geroago esnatu nintzen eta orduan konturatu nintzen aulki batean loturik nintzela. Antton, momentu horretan, beste gela batean zegoen kafe bat hartzen eta seguruenik ni esnatu arte itxaroten. Ni askatzen hasi nintzen lortu egin arte, baina noski, zaratarik egin gabe. Azkenik askatzea lortu egin nuen, eta orduan isil-isilik Anttonengana joan nintzen. Aulkiko sokak hartu nituen eta haiekin Antton inguratu egin nuen. Udaletxera eraman nuen eta orduan alkateak poltsa bat eman zidan diruarekin. Udaletxetik ateratzean, telebistetako kamara asko zeuden eta nola jakin izan nuen Antton zela lapurra galdetzen hasi ziren denak. Nik hitz gutxiarekin erantzun nien:

- Agenda batekin, arkatx batekin eta burua astinduz.

Beno, hemen bukatzen da nire lehen kasua. Orain nire hurrengo kasua kontatuko dizuet.

1903an, nik 23 urte nituenean...

Natura zaintzen ez zuen gizona

Asier Garmendia Berango

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Behinola herri batean pertsona arduragabe bat bizi zen. Berari denak bost axola zion, eta zakar guztiak lurrera botatzen zituen. Leku guztiak zikin utzi zituen eta horren ondorioz herriko jendea berataz nazkatuta zegoen.

Gehien gustatzen zitzaiona gure gizonari mendiz mendi ibiltzea zen, eta horregatik mendian etxe bat eraikitzea erabaki zuen. Bere lanaz oso harro zegoen.

Egun batean menditik paseatzera atera baino lehen gosaria prestatu zuen. Poltsa baten barruan bokata bat eta garagardo botila bat sartu zituen.

Bero handia egiten zuenez berehala egarria izan zuen. Zuhaitz baten ondoan eseri zen eta gosaria jaten hasi zen. Garagardo fresko zegoen oraindik eta bukatu zuenean, beti egiten zuen bezala, botila lurrera bota zuen. Bere bidea jarraitu zuen oso pozik.

Eguzkiaren izpiak botilaren kristaletik pasatu ziren eta horren ondorioz sute bat sortu zen. Uda zenez, belarra oso lehor zegoen eta sua oso azkar hedatu zen.

Herriko jendeak suhiltzaileak deitu zituen eta elkarrekin sua itzali zuten. Gizonari epaiketa bat egin zioten eta herritik kanpo botatzea erabaki zuten. Orduan, gizonak ondorio bat atera zuen: "natura zaintzen badugu, gu zainduko gaitu".



Rimeik familiaren maldizioa

Ainhoa Nagore Hermoso

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 6° curso

Plury herrian, 1991n, etxe polit, handi eta aberats batean soinu bat entzun zen. Soinu horren ondoren lainoa agertu zen eta lainoaren atzetik oihuak. Han ezkondata zegoen bikote bat bizi zen: Myra eta Day. Haiek bi haur zituzten: Kli hamaika urteko mutikoa eta Lik sei urteko neskatxoa. Soinu hori entzun ezkeror inork ez zuen familia horretaz gehiago jakin (familiaren abizena Rimeik zen). Handik aurrera etxe horretan bizitzera sartu ziren familia guztiak gaizki bukatu zuten. Azken familia, adibidez, oso zorrigaitza izan zen: amak depresioa hartu zuen, bere bi semeak basoan galdu eta hil ziren, eta lanetik bota zuten.

Hamasei urte beranduago, 2007. urtean koadrila bateko bost lagunak etxe horren inguruan plazan baloiarekin jolasean zebiltzan: Sara, Helen eta Diky (bere izen osoa Dikydimetri zen) eta bi mutil, Tim eta Jack. Bat-batean, Timi etxeko leiho batetik baloia sartu zitzaion.

- Tim!! –esan zuen Jackek –hori etxe gaiztotua da.

- Barkatu! –esan zuen Timek- beno, banoa baloia hartzera.

- Gu ere bagoaz –esan zuen Diky- –laster bueltatuko gara.

Horrela bost lagunak etxera sartu ziren. Barnean zirela zerbait entzun zuten: raarraarraarraarra... Bat-batean pertsona baten hezurak altxatu ziren eta lagunak atzetik zihozten. Gure lagunak, azkar, azkar; korrika hurrengo logelara ihes egin zuten. Baina han zaborra besterik ez zegoen.

- Hau norbaiten logela zen –esan zuen Diky-, begira, atean Kli izena agertzen da (hau desagertutako mutikoaren logela zen).

Haien atzean zetozen hezurrek berriro aurkitu zituzten eta haiek berriro ihes egin zuten. Oraingo honetan logela ilun batean ziren. Atean Lik jartzen zuen.

- Zer gertatzen da hemen? –galdetu zuen Helenek– beldurra daukat.

- Lasai, lasai –esan zuen Sarak.

Bat-batean espiritu bat agertu zen. Kliren itxura zuen espirituak hauxe esan zien:

- Zer egiten duzue hemen? Azkar, joan behar duzue! Nire gurasoek aurkituko zaituztete!

- Zer? –galdetu zuen Diky, guztietatik ausartena zenak.

- Guk gure baloia berreskuratu behar dugu!

- Ez!! Nire gurasoak etorriko dira!! Ihes egin behar..

- Lik! (Norbaiten ahotsa entzun zen).

- Zer egiten ari zara?

- Ai, ama!! Nire gurasoak dira!!

- Lik, zer esan nahi du honek?

- Hauek pertsonak dira!! –esan zuen Myraren forma zuen mamu batek.

- Hil beharko ditugu!! –esan zuen beste mamu batek (honek Dayren forma zuen).

- Eta azkar!!!

- Ez, aita! –esan zuen Klikek –agian beraiek gure maldiziotik ateratzeko boterea daukate!!

- Maldizioa? –galdetu zuen Diky- Zein maldizio?

- Entzun –esan zuen Like- gu maldizio baten menpe gaude. Badakizue zer gertatu zen orain dela hamasei urte?

- Bai!!! –erantzun zuen Jackek.

- Nire aitak... –hasi zen Lik- Nire aitak pertsona bat ezagutu zuen. Pertsona hori deitzen zen Max eta oso gizon maltzurra zen. Nire aitak kartetako joko batean irabazi zion Maxi, eta Max haserretu, eta zera esan zion: "1991. urtean oihu bat entzuten duzuenen zu eta zure familiako guz-



tiak mamu bihurtuko zarete". Eta hala gertatu zen.

- Eta ezin da ezer egin?

- Bai. Maxek zera esan zuen: "Norbait iritsiko da, norbaitek zuek hilko zaituzte eta zuek, hiltzera-koan, nire maldizioa apurtuko duzue eta zuen hilobira joateko libre izango zarete".

- Mesedez, hil gaitzazue! Gu aspertuta gaude.

- Ondo da –esan zuen Dikyk. Suarekin erreko zaituztegu.

Beraien hilobira bueltatu ziren. Lurrean zerbaitez goen... baloia!! Etxetik ateratzerakoan zerbaitez konturatu ziren: baloiaren aurrean esaldi bat zegoen idatzita...

“Eskerrik asko”

Kontrako oparia

Ana Pascual Zuasti

I.SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Bazen behin Donostian bizi zen Joan izeneko mutil bat. Hamaika urte zituen eta bederlatzi urte-etatik umeak (ikasleak) ikaratuak zituen, indarkeriaz baliatzen zen eta.

Egun batean Joan klasera inoiz baino alaiago joan zen, bere urtebetetzea zen eta:

- Kaixo, kaixo, kaixo! –esan zuen ahots maltzurrarekin- Ba al dakizue zein egun den gaur?

- Eeee..., zure urtebetetzea –erantzun zuten beldurrez beste ikasleek.

- Bai horixe. Zer oparitu didazue?

Hori esatean ikaskide txiki bat hari hurbildu zitzaion opari bat eskuetan zuela.

- To, to, to, tori, hau da zure oparia.

- Hain txikia? –esan zuen Joaneke harrিতuta.

- Txikia da, baina, polita eta baliotsua.

Zure onerako, egia izan dadila... –esan zuen papera apurtzen zuen bitartean. Bola urdina eta oso polita zen, kristalezkoa.

Etxera bueltatzean, bere opari berria amari erakutsi zion, bere erabilera ere azalduz:

- Begira ama, kristalezko bola hau nire gelakideek oparitu didate, ze bestela... beno jaja. Bere erabilera zera da: laztantzen duzunean zer egin nahi duzun esan eta berak egiten du.

- Oso ongi, bihotza, eta zertarako erabiliko duzu?

- Ba... etxeko lanak egiteko, ohea txukuntzeko, logela garbitzeko... eta nire gelakide maiteekin jolasteko...

- Zertara jolasteko?

- Niri jolastea gustatzen zaidan jolas batera: oilo hiltzera jolasteko eta nik denbora guztian botako dut.

- Ongi da, baina, ez minik egin eee...

- Ez, lasai... jajaja.

Hurrengo egunean, Joaneke bere bola berriarekin patioan jolastu zuen oilo hiltzera.

- Geldi zaitzete... –esan zien bere gelakideei bola zuzentzen zien bitartean eta... PAM! Gelakide bati aurpegi erdian eman zion. Gelara igotzeko txirrinak jo zuen eta mutilak bolarekin bere aurrean aurkitzen zuen pertsonari kolpe bat eman zion, kentzeko esan ordez. Joaneke ez zekien bolak berak esandakoaren aurkakoa egiteko botoi bat zuela. Asteak eta hilabeteak pasatu ziren eta ikasleek Joaneren jarreraz nazkatuta zeudenez kontrako botoia zapaltzea erabaki zuten:

- Joaneren indarkeria bukatuko da!



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Bai, horixe, betirako! –esan zuten haiek barrezka.
- Hurrengo goizeko atsedendian, Joaneke betiko jolasera jolasteko asmoa zeraman, baina, txikiek jaso ordez, berak jaso zuen.
- Joaneke guztiz harrিতта berriro ere bota zuen eta berriro ere berak jaso zuen:
- Baina, zer pasatzen da?! Zuek zer bait egin diozue nire bola ederrari!
- Bai, guk kontrako botoia zapatu dugu zure indarkeriarekin akabatzeko.
- Nola?! Konturatuko zarete nor naizen ni!
- Bola ezin izango duzu erabili.
- Ezetz?! –esan zuen bola jausiz, eta beste kolpe bat jaso zuen.
- Ikusten?
- Ongi da, ongi da... ez dut indarkeriarik hemendik aurrera erabiliko, baina, bola hau gelditu! –esan zuen negarrez eta damututa.
- Bai, oraintxe bertan –erantzun zuten umeeke barrezka.
- Azkenean Joaneke indarkeria alde batera utzi eta triste baina lagun askorekin bere bizitza jarraitu zuen.

3 lagun Saharan

Aritz Lasarte Cía

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 1. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Baziren behin hiru gazte, 20 urtekoak, bidaiatzea oso gustuko zutenak. Julen, Ander eta Alex deitzen ziren. Hiruak ausartak ziren baina baliteke Alex azkarrena izatea, beti asmatzen zuen eta. Egun batean, herrian zeudela, azkenaldian gutxi bidaiatu zutela ohartu ziren. Hiruak liburutegi berdinean lan egiten zuten. Gehiegi kobratzen ez bazuten ere, nahiko ongi moldatzen ziren. Nahikoa diru aurreztu zutenean abentura berriren bat izateko asmoz katalogo batean begiratu zuten nora joan erabakitzeke. Sahara basamortua aukeratu zuten inoiz ez zirelako basamortuan egon. Handik aste betera maletak prestatzen hasi ziren eta aireportura abiatu baino lehen lanera deitu zuen Julenek Afrikara zihoazela ohartarazteko. Hegazkina nahiko zaharra zen eta bertan ibiltzea nahiko merkea, baina gutxienez elkarrekin joan ziren eta oso gustura.

Iritsi bezain alokatu zuten etxetxorantz abiatu ziren gamelu gainean. Ibilaldi atsegina izan zen baina zoritxarrez garestia. Etxola oasi txiki batean zegoen, zehazki herririk txikiaren ezkerreko aldean. Etxeak hiru gela zituen: logela bat 3 oherekin, sukaldetxo bat eta komun zikin bat. Motxila eta maletak hustu eta zekarten dirua segurtasun kutxan ezarri zuten ondoren giltzaz ixteko. Giltza Anderrek gorde zuen. Gaua iritsi zenez lotara joan ziren gure protagonistak.

Biharamunean gauza berriak ezagutzeko gogo biziz esnatu ziren Julen, Alex eta... beno, Ander ez, sukarra baitzuen. Orduan Julenek gosaria bukatu zuenean auzokoren batek ea Ander zainduko zuten galdetzeraz joan zen eta aurkitu egin zuen gizon bat Mohamed izenekoa. Azkeneko hau Anderrengana joan zen, momentu hartan lotan zegoelarik. Julen, berriz, Alexekin inguruak ikustera irten zen. Duna erraldoi bat igo eta gero handik ez oso urrun oasi txiki bat zegoela ikusi zuten. Arratsaldekoa eraman ez zuten "etxera" bueltatzea erabaki zuten.

Etxera ailegatu bezain laster Ander ohean ez zegoela konturatu ziren Alex eta Julen. Komunean eta sukaldetxoan begiratu arren ez zuten laguna topatu. Harrigarriena ordea zera zen: segurtasun kutxa hutsik zegoen! Honek zur eta lur utzi zituen bi lagunak. Orain nola bueltatuko ziren etxera? Ander izan al zen? Zergatik egin zuen? Gaixorik zegoen itxurak egin ote zituen? Momentu batez amesgaizto bat zela iruditu zitzaion baina ez, zoritxarrez egia zen. Erreakzionatzen lehe-

XVIII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



nengoa Alex izan zen eta ahalik eta azkarren Ander bilatu behar zutela adierazi zion besteari. Hasieran oasitik barna bilatzen saiatzea erabaki zuten. Bertan aurkitzen baldin bazuten ezer ez esatea erabaki zuten. Ordu pare batez bueltaka ibili ostean Mohamed azaldu zen, Ander zaintzen ibili beharko zuena:

- Kaixo, zer moduz? –galdetu zien.
- Ba, ez oso ongi –Julenek.
- Gutxienez zuen laguna hobeto dago.
- Non dago bera? –galdetu zuten ia oihuka.
- Nire etxean dago, bertara eraman dut hobeto senda zedin –erantzun Mohamedek- lehenago erran ez badut ere medikua naiz.

Mohamedek esandakoak harriturik, ez, izozturik utzi zituen gure lagunak, gehien Julen. Azkar-azkar Anderren bila joan ziren. Guztiz sendaturik zegoen. Berak zituen diruaren kuxxaren giltzak. Bera izan al zen? Julen pentsatzen hasi zen: bera ez zen izan, beraz, Alexek edo segur aski Anderrek lapurtuko zituen. Julenek Anderri esan zion dirua lapurtu zutela eta hau zur eta lur geratu zen. Edota itxurak egiten ari zen? Ondoren Julenek nor izan zen galdetu zuen baina gure lagunak isil-isilik gelditu ziren. Gero, zerbait jan ondoren (azkeneko afaria behar bada) lotara joan ziren. Hurrengo goizean nahiko goiz esnatu zirenean hiruak gosea pasatzen hasi ziren. Ondoren Mohamed etorri zen. Alex Anderrekin bakarka hitz egitera joan zen eta bera izan zela esan zion. Anderrek ordea, sinestu ezinik, bera ez zela izan eta bera ez zela izan burugogor eusten zion. Azkenean Alexek etsi egin zuen, eta handik joan zen. Ondorengo orduetan triste-triste ibili ziren 3 lagunak. Beraiek oporretan etorri eta orain ordea etxera itzultzeko sosarik gabe. Halako batean gerta zitekeen gauzarik arraroena eta txundigarriena jazo zen: Mohamedek bera izan zela aitortu zuen. Ez zen posible!! Medikiak esan zuen diruz justu-justu zebilela eta Ander lokartuta zegoen bitartean lapurreta egin zuela. Gaixoa iratzarri aurretik bere etxera eraman zuen, sendatzeko aitzakiarekin. Beranduxeago dirua bueltatu zien herrira joan ahal izateko. Gure lagunak errukitu egin ziren baina besteen bizitzan muturra gehiago sartuz gero poliziari deituko ziotela abisatu zuten Mohamed. Alexek Anderri barkamena eskatu zion eta gauzak beti bezala geratu ziren. Hurrengo hegazkina hartu zuten beraien etxera itzultzeko.

Orain gure protagonistak agureak dira baina hala ere istorio honetaz primeran oroitzen dira, bai horixe.

Marinel baten istorioa

Markel Videgáin Barberena

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Duela urte asko Frantziako kostaldean zegoen herri batean honako hau gertatu zen.

Abenduaren 6an, goiz lainotsu batean, txalupen artean saski bat ageri zen, saskiaren barruan ume txiki bat zegoen maiztxuri txuri batez estalita. Umea benetan ederra zen, ile horia eta begi urdinak zituen. Hau, handik zebiltzan bi agurek hartu eta beraien etxera eraman zuten. Berarekin zer egin pentsatzean, Udaletxera eramanez gero, ez zutela berriro ikusiko ohartu ziren, beraz, harekin gelditzea erabaki zuten. Honi ze izen jarri pentsatu zuten eta, azkenik, Artur deitzea erabaki zuten.

Urteak eta urteak joan ziren, Arturrek hamabi izan arte. Artur gizontxo bat zen, lagunak zituen, eskolan ondo zebilen, eta Nedra izeneko txakur bat zuen. Arrantza gustuko zuen eta bere ametsa benetako marinel bat izatea zen. Bazekien ze nolako gauza txarrak zituen baina berak mun-



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

dua ezagutu nahi zuen. Arturren ama oso gaixorik zegoen, nahiko zahar zegoelako agian. Azkenik, hil zen. Arturren aitak berarekin hitz egin nahi zuela esan zion eta biak sukaldeko mahaiaren inguruan eseri ziren. Hauek oso triste zeuden baina egia esan behar zion. Txikitan saski batean aurkitu zutela esan zion beraiek ez zirela bere benetako gurasoak. Artur harrিতuta geratu zen, zer egin ez zekiela, baina, bere bila ezin zen joan txikia zelako.

Beste sei urte igaro ziren, Arturrek hemezortzi urte zituen. Normala izango zen agian, baina bere aitaren bila joatea erabaki zuen, Nedrarekin noski. Biek hurrengo goizean bidea hartzea erabaki zuten. Baina nora? Urte haietan guztietan bere aita izan zenak honela esan zion:

- Tori, txartel hau zurekin batera etorri zen.

Zumaiako itsasontzi fabrika batena zen. Orain bazekiten nora joan.

Hurrengo egunean goiz esnatu, janaria, soka luze bat, arropa eta txartela hartu eta txalupan abiatu ziren, Euskal Herriko herri hartara.

Aurrera zihoazela, zerua hodei beltzez estali zen eta kristoren haizea egiten zuen. Bat-batean txaluparen mastila erori zen, zulo handi bat eginez honen ertzean eta hauek itsasora salto egin behar zuten. Zorionez, handik hurbil, irla bat zegoen eta horren kobazulo batean Nedra eta Artur lasai zeuden.

Esnatu bezain laster, kobazulotik atera eta behin eta berriz non zeuden buruari galdetu arren, honek ez zuen erantzuten. Zer egingo zuten? Artur nahiko trebea zen eta txalupa bat egitea erabaki zuten, bestea apurtuta zegoen eta. Itsasoak eramandako txaluparen xafiak bildu, sokarekin denak lotu eta aurrera jarraitu zuten.

Egunak eta egunak itsasoan eman ondoren Zumaian zeuden, aita aurkitzeko prest. Artur jende-ari galdezka hasi zitzaion eta asko bilatzeak bere oparia eman zuen. Fabrika non zegoen esan zioten. Artur korrika hasi zen, eta iristean abandonatuta zegoela ikusi zuen. Hau oso triste jarri zen, baina, oraindik aurkitzea zegoen.

Hurbil zegoen atso bati galdetu zioten. Honek, bere aitaren etxeko helbidea eman zien. Bere etxera iristean, han aurkitu zuten, aulki batean eserita. Zoritxarrez itsua zen baina Arturri berdin zitzaion, azkenean bere aita aurkitu baitzuen.

Handik aurrera, berarekin bizitzen eta bera laguntzen gelditu ziren eta hirurak oso pozik bizi izan ziren.

Klima misteriotsua

Miguel Retegui Casajús

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Egun batean, beste egun normal bat bezala, mutiko batzuk parkean zeuden jolasean. Egun hartan bero handia egiten zuen, baina bat-batean mutikoak gaizki sentitzen ziren, aurpegian puntu-txo moreak jarri zitzaizkien eta batzuk konortea galdu zuten.

Horrela hasi zen nire kasurik bereziena detektibe lanean, orain zer gertatu zen esango dizuet.

Mutilek konortea galdu zutenean denek gaixotasun bat izango zela uste zuten, baina egun hartan emakume bat bere etxera zihoan, etxera iritsi zenean mareatua zegoen eta poltsak sukaldetan utzi, eta sarrerako ispilurantz abiatu zen. Bat-batean aurpegi guztia morea zeukan, eta ospitalera eraman zutenerako emakumea hilda zegoen.

Orduan denak kezkatuak zeuden, denek zekiten gaixotasun bat ez zela, hura zerbait garrantzitsua zela.

Bi ordu pasa eta herriko biztanle guztiak udaletxean elkartu ziren zer gertatzen ari zen eztabai-



datzeko eta nola konpondu zitekeen. Hitz egiten zeuden bitartean ospitaleko medikua etorri zen, mutikoak hil zorian zeuden.

Iritsi zirenean han zeuden medikuak lan eta lan mutikoen bizia salbatzeko asmoz. Zorionez zazpi mutiko ongi eta bizirik atera ziren, baina gero bat oso gaizki zegoen eta zoritxarrez bi mutiko hil egin ziren.

Hileta-elizkizunean herrian geratu zen jendea (izan ere herri hori oso txikia zen), familiei animuak ematera joan zen, denak negarrez eta oso triste zeuden bi mutiko haiengatik, oso txikiak ziren eta; benetan egun txarra izan zen hura herriko biztanleentzat.

Hurrengo egunean denak udaletxean zeuden (zehatzak izateko 60 biztanle gelditzen ziren herri hartan). Gero jende guztia hitz egiten hasi zen, batzuk inor etxetik ez ateratzea esan zuten, beste batzuk tunelak egitea eta besteek jantzi bereziak janztea. Hori eztabaidatzen orduak eta orduak eman zituzten, baina azkenik pertsona bati ideia on bat bururatu zitzaion, benetan ona zen, detektibe bati deitzea erabaki zuten.

Eta hor sartzen naiz ni, ondoren zer gertatu zen esango dizuet.

Orduan ni pentsatzen ari nintzen, mutikoena eta emakumearena zer baitetan loturik zeuden. Denbora pasa eta han nengoen ni pentsa eta pentsa zer izan ote zen eta azkenik!! Jakin nuen zein izan zen erruduna. Nik herriko jendeari deitu nion eta Udaletxean geundenean, klimaren errua zela esan nuen. Mutikoez konortea galdu zutenean, sekulako beroa egiten zuen, eta emakumea hil zutenean euria barra-barra ari zuen, denak harrituta gelditu ziren, baita ni ere baina horrela izan zen. Azkenean kristalezko zeru bat jarri zuten betirako.

Horrela bukatzen da nire kasurik misteriotsuena, ongi pasa al duzu? Baietz espero dut.

Egun batez, beste pertsona bat izan!

Ainara Maestro Aniz

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria Iº ESO

Arantzazu 14 urteko neskatila bat zen. Potolo samarra, altua eta oso jatorra jendearekin. Hitzeko pertsona zen. Lo egitea eta dantzatzea gogoko zituen. Maria bere gelako neskatila zen, beste neska guztiek inbidia handia zioten.

Otsailaren 28a zen eta gauean gauza arraro bat gertatu zitzaion Arantzazuri. Amets arraro bat izan zuen. Amets horretan dena oso polita zen. Zuhaitzak berde-berdeak ziren, lorez beterik zeuden, laku handi eta garbi bat zegoen ahateak eta zisneak han igerian zeuden alaitasun osoz. Baina ispilu batean begiratzean bera ez zela konturatu zen: Maria zen, bere gelako neska harroa!!!

Hori ikusi zuenean susto handi batekin esnatu zen. Iratzargailuak jo zuen. Arropa jantzi, aurpegia garbitu zuen, baina... begiratu zuenean bere burua, aaaaahhhh!!! Konturatu zen Maria zela, ametsen gertatu zen bezalaxe.

Bat-batean emakume baten ahotsa entzun zen Maria etortzeko esaten zuena. Bera Maria zen. Ez!!! Orduan korrika-korrika jaitsi zen.

Ikastolara ailegatzean, bera (Arantzazu) beste leku batean zegoela ikusi zuen, bere espiritua edo horrelako zerbait. Hara abiatu zen, baina bazihoanean mutil polit eta harro batek musu eman zion ezpainetan. Mariaren mutil laguna izango zen. Mariak zeharka begiratu zion eta irribarre bat botatu zion. Bere atzealdean ahots fin batekin norbaitek "Maria" esan zuela konturatu zen, buelta eman eta Mariaren lagun pinpilinak zirela konturatu zen. Buelta eman zuen, oso gaizki hartzen baitzuen beraiekin eta ez ikustearena egin zuen. Lagunak oilarra baino tenteago joan ziren, nire ustez haserre. Baina bera Arantzazurengana joan zen, ea Maria zen galdetzera eta berak esan zion Maria



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

bera zela.

Denek barrez lehertu ziren eta Maria lotsatua geratu zen. Denek pentsatu zuten ganbaratik izorratua egongo zela.

Agian Maria bere gorpuan sartu zen, ez!!! Agian hori gertatu zen, bai!!! Maria momentu batez pentsatzen gelditu zen, atzo Arantzazu zen, gaur Maria. Bazekien dena amets madarikatu horren erruz izan zela. Berak betirako Maria izan nahi zuen; Maria horrelakoa zen: polita, harroa, pertsona txarra, berekoa, ile horia, eta mutilei gustatzen zitzaien. Arantzazu, berriz, horrelakoa zen: itsusia, jatorra, pertsona ona, ez zitzaien mutikoei gustatzen, potolo samarra... Maria betirako izan nahi zuen mutikoekin ondo eramaten zelako eta mutil laguna zeukalako eta gainera guapoa eta azkarrak. Mariak bazekien zer egin, ohean berriro sartuko zen eta berriz Arantzazu bihurtuko zen. Etxerako bidea hartu zuen, baina non biziko zen Maria? Ez zekien, horrexegatik ikastolara bueltatu, atezaindegira joan, eta Maria non bizi zen galdetu zuen. Enparantza plazan bizi zen bere aitona amonaren portalaren ondoan.

Hara abiatu zen eta tinbrea jo zuen. Bere "ama" k bronka galanta bota zion, ingelesera eta dantzara ez zelako joan; berak esan zion oso arraroa zegoela. Mariak erran zion buruko minez zegoela eta ohera bazihoala. Ohean sartu zenean eguzki izpi batekin logela osoa argitu zen. Horrek amets arraroa hasi behar zela esan nahi zuen. Bere buruan lehenengo ametseko paisaia polit hori agertu zitzaion: zuhaitzak, lakua, ahateak, zisneak...

Iratzargailuak jo zuen instantean ametsetatik esnatu zen. Esnatu bezain laster ispilura begiratzera joan zen eta Arantzazu zela konturatu zenean poz handia hartu zuen. Ikastolara ailegatu zenean, Maria erotua zegoela uste zuten denek. Noski, pasatu zena ikustean (noski, Mariak ez daki hori guztia gertatu dela)... Mariaren lagunak ez zioten ezer esan kaixo izan ezik. Mikelek, Mariaren mutil laguna, Arantzazurengatik utzi zuen. Eta egun horretatik aurrera Mikel eta Arantzazu elkarrekin ateratzen dira.

Azkenean Arantzazu konturatu zen jatorra izaten polita izaten baino gauza askoz gehiago lortzen direla. Horrexegatik Arantzazuk ez zuen inoiz gehiago inbidiarik edo konplexurik izan. Maria bakarrik gelditu zen, baina Arantzazu pertsona ona zenez kasu asko egiten zion eta berarekin joateko aukera eman zion.

Agure azkarra

Ander Cambra Gainza

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Behin, baserri batean familia bat bizi zen. Familia oso handia zen, 30 bizilagun zirelako.

Mutil batzuk politikak, beste batzuk itsusiagoak... Neska gehienak oso politikak ziren batzuk izan ezik. 5 aitona amon, 6 guraso, eta beste guztiak seme-alabak ziren, eta asko gustatzen zitzaien jatea plateretan zegoen guztia.

Egun batean seme-alabak herrira joan ziren haziak erostera. Haziak erosi ondoren ereitera joan ziren baserri ondoan zeukaten sorora. Haziak erein ondoren etxera bueltatu ziren jateko asmoz. Bazkaldu ondoren sorora joan ziren ureztatzaera, eta bidean mago zahar batekin topo egin zuten. Magoak baserritarrei esan zien beren soroa eta beren etxea sutan jarriko zituela. Seme-alabak eta aita barrezka hasi zitzaizkion: "Nola beren etxea eta soroa sutan jarriko zituela?" Baserritarrek kasurik egin gabe beren bidea segitu zuten.

Aste batzuk pasata mafioso batzuk agertu ziren baserrian. Mafiosoek esan zieten beren etxea eta beren soroa sutan jarriko zituztela ez bazizkieten ematen. Baserritarrek ez zieten batere kasurik

XVIII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



egin, beren etxea eta beren lurraldeak beraienak zirela eta ez zizkiotela inori emango esan zieten mafiosoek.

Egun bat pasata, lanera joan ziren, baina sora kiskalita zegoen. Orduan pistoleroek esan zuten etxea ez bazieten ematen hurrengo egunerako seme-alabak lapurtuko zituztela.

Geroxeago etxera joan ziren lo egiteko.

Hurrengo egunean lanera oso goiz joan ziren, soroak berriz ereiteko. Bueltatu zirenean, etxea sutan zegoen. Etxea salbatu nahian egon ziren baina ez zuten ezer salbatu.

Orduan mafiosoak atera ziren esanez ez bazieten etxea ematen ez zituztela seme alabak emango.

Orduan gurasoak oso triste jarri ziren beren seme-alabak galdu zituztelako.

Egun batzuk pasata agure zahar bati izugarritzko ideia bat bururatu zitzaion. Egun hartan pistoleroak bueltatu ziren soroa eta etxea emateko. Momentu hartan agure zaharra atera zen esanez:

- Guk ez dizkizuegu emango gure lurrak eta etxea, nahi baduzue gera zaitzete mutiko eta neskekin.

- Ja, ja, ja, ja! —barre egin zuten mafiosoek— eta zergatik ez dituzue nahi zuen seme-alabak?

- Ba, beti jaten dabiltzalako, eta gainera gauean soinu arraroak egiten dituzte.

- Hori gezurra da, nola egingo dituzte soinu arraroak gauean?

- Ba, bai, egia da.

- Mafiosoak joan ondoren, familia zur eta lur geratu zen agureak esan zuenarekin.

Gero aitak agureari galdetu zion ea zergatik esan zuen gezur hori. Orduan agureak erantzun zion soinu arraroak egiten zituztela. Bera gauen ezin zela lo geratu beren soinu arraroengatik. Egunak pasata, mafiosoak ez ziren etortzen. Orduan aitak eta familiak eskopetak hartu, eta mafiosoek etxera joan ziren, hiltzeko asmoz. Orduan agure zaharra atera zen esanez:

- Ez joan, joaten bazarete seme-alaben heriotza sor dezakezue.

Egun hartan mafiosoak joan ziren laguntza eske, ezin zituztelako gehiago jasan haien gaueko soinuak, gainera diru asko gastatu zuten mukizuei janaria emateko.

Orduan familia oso pozik zegoen beren seme-alabekin zeudelako. Ume txikiak kilo batzuk igo zituzten mafiosoek bizitza inposiblea egin zitelako jaten eta jaten.

Azkenean familiakoak oso pozik jarri ziren pistoleroak bota egin zituztelako baserritik eta azkenean soroa erein eta etxea berriz egin zutelako.

Nire harana

Odei Sagardoi Soria

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Euskal Herriko gertakizun bat da kontatu behar dizudana.

Duela urte asko mendi baten haranean jaio nintzen, haran hau izugarri polita zen: mendiak zuhaitzez eta belarrez josita, zuhaixkak altuak eta baxuak, hala nola, gorostiak, atxuneak... lore mota ezberdinak, txiribita, eguzki-lorea... zeuden.

Ni primeran bizi nintzen eta osteran lagun anitz nituen; arrainak, sugeak, karramarroak, txoriak, igelak, arratoiak, algak, zuhaitzak, hodeiak, beste batzuen artean.

Neguak erabat dibertigarriak ziren, ni lodi-lodia jarri eta haranetik oso azkar jaisten nintzen, batzuetan herriak eta etxeak bisitatzera joaten nintzen.

Udak, berriz, hagitx lasaiak izaten ziren, nahiz eta egun batzuk besteak baino bereziagoak izan, hain zuzen ere hodeiek jolastu nahi zuten egunak.



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Bat-batean hodeiak oso azkar mugitzen hasten ziren, eta horren ondorioz zerua estali, ilundu, eta kazkabar jasa handiak botatzen zituzten.

Denbora laburrean eguzkia atera eta ni galant eta distiratsu jartzen nintzen.

Igandeak egun bereziak ziren, familiak niregana etorri eta nire ertzetan iluntzeraino geratzen ziren: kartetara jolastu, soka saltoan ibili, kalderetea egin...

Bukatu eta gero, bildu, garbitu, eta haien etxeetara itzultzen ziren.

Egun batean jende anitz ikusi nuen, baina ez zen igandea ezta jende ezaguna ere, gainera makinak eta tresna arraroak ekartzen zituzten.

Denbora gutxian eraikin bat eraikitzen hasi ziren, bi hilabetetan eraikina martxan jarri zuten, eta denbora gutxian nire lagunetako batzuk gaixotzen joan ziren, hiltzeraino.

Sei hilabete pasatutakoan nire lagun gehienak hiltzen joan ziren eta nire kolore eta usaina pixkanaka-pixkanaka geroz eta txarragoa zen.

Ni oso kezkatua nengoenez, ez nekien zer jazotzen ari zen, eta tristeago sentitzen nintzen, nire lagun minak baitziren.

Egunak joan eta egunak etorri eraikinak egiten zuen soinua haran osotik entzuten zen. Egun batean, ordea, zehazki igandean, musika bizia eta algaratsua besterik ez zen entzuten.

- GURELUR -EKOAK DIRA !!!!!

Egun osoan zehar hosto lehorrak eta zaharrak kendu, belarrak eta zuhaitzak landatu, nire ertze-etako hondakinak garbitu... eta bitartean jendea dantzaka eta kantaka zebilen.

Ilunabarrean, noski, hodeiak festara etorri ziren eta ttantaka-ttantaka berriz ere normaltasuna itzuli zen ni bizi nintzen haranera.

HAU DA IBAI BATEN ISTORIOA

Ate magikoa

Nekane Goñi García

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

12 urte nituela etxea batera aldatu ginen, gurea pisu itsusi bat baitzen.

Etxe berria, beno, hobe esanda gaztelua, oso handia eta zaharra zen, kaleko atea irekiz gela handi batean eskailera luze eta zabalak zeuden. Hara ailegatu ginen egunean nik eskailera igo, nire logela bilatzera joan nintzen, ate asko ireki nituen baina ez zegoen nire gustuko gelarik. Azken atea irekitzerakoan logela zabal, argitsu, usain onekoa... e.a. aurkitu nuen. Honek gainera errezeldun ohe bat eta armairu handi polit bat zeuzkan. Hantxe nire lehenengo gaua pasatu nuen. Gauean, jakin-mina piztu zitzaidan. Ohetik altxatu eta pasabidera atera nintzen. Honetan ate pila bat zeuden aldamenetan. Eskailera jaitsiz, azkenean satora ailegatu nintzen. Hantxe metalezko ate handi, zikina agertu zitzaidan sudurraren puntaren aurre-aurrean. Nik atea ireki nuen eta dena beltza ikusten zen, ni sartu nintzenean atea itxi zen. Bat-batean eguzkia atera eta atea desagertu egin zen. Oihan bateko hosto erraldoi batean aurkitu nintzen. Lurretik altxatu, hortik paseatzera joan nintzen. Denbora bat pasa ondoren, ibai baten aldamenean nindoala pertsonaia arraro bat agertu zitzaidan, gorputza gizaki batena zeukan baina burua, berriz, arrano beltzarena zeukan. Bera niregana hurbildu zen eta bere aurkezpena eginez esan zidan:

- Kaixo, nire izena Beltxor da. Nondik zatoz?



Eta nik ate batetik nentorrela erantzun nion.

Berak niri esan zidan berarekin joateko eta ni berarekin joan nintzen. Mendi aldapa batetik eraman ninduen eta azkenean mendiaren tontorrean geundela, berak esan zidan:

- Eutsi gogor nire bizkarretik!

Nik pentsatu nuen "Zertarako?". Nik galdetu nion:

- Zertarako nahi duzu?

Bera azkar leize zuloaren mugan jarri, eta esan zidan:

- Benga, azkar, eutsi gogor neure bizkarrari!

Ni korrika joan nintzen beregana, eta bizkarretik heldu nion. Bat-batean arrano beltz batean bihurtu zen eta leize zulotik behera bota zuen bere burua; ni horrekin txoratuta geratu nintzen. Laku batetik pasatu, txori politak ikusi... eta gero lurrera iritsi ginen, ni etorri nintzeneko atea bilatzen ari nintzen baina ez nuen aurkitzen. Orduan Beltxorrengana hurbildu, eta esan nion:

- Beltxor, Beltxor, ez dut atea aurkitzen!

- Ze ate?

Eta esan nion:

- Etorri nintzeneko atea!

- Ba, Balalungarengana joan behar gara.

Babalungarengana joan ginen eta esan zigun:

- Kaixo, zer nahi duzue?

Eta Beltxorrek esan zion:

- Neska hau etorri zeneko atea desagertu egin da.

- Badut irtenbidea, baina garestiegi aterako zaizue.

- Ez dio axola horrek. Zer egin behar dugu? –galdetu nuen nik. Eta berak erantzun zidan:

- Ba, ja, ja, ja, hiru hosto beltz ekarri behar dizkidazue.

Beltxorrek esan zuen:

- Hosto beltzak toki honetako mendirik altuenean daude, hiru egun kostako zaigu hara ailegatzeara.

Eta nik esan nion:

- Ez zait inporta, nik etxera bueltatu nahi dut.

Orduan Beltxor arrano beltz bihurtu eta ni bere gainean eseri nintzen bere sorbaldari ondo helduz. Ondoren Beltxor mendia igotzen hasi zen. Nik gorantz begiratu eta ez zen tontorra ikusten baino ezalita baitzegoen. Ni Beltxorren sorbaldan lokartzen hasi nintzen eta esnatu ondoren oraindik ez ginen ailegatu, hala izan omen zen behin eta berriz; azkenean ailegatu ginen tontorrera, eta esan zidan:

- Jaitsi zaitez.

Ni jaitsi nintzen eta justu nire alboan hiru hosto beltz zeuden. Nik azkenik hostoak hartu nituen, eta Beltxorren gainean jarri nintzen. Bera hegan hasi zen eta hamar minututan gutxi gora behera behean geunden. Orduan Balalungarengana joan ginen eta hiru hosto beltzak entregatu genizkion, orduan berak koba batetara eraman eta nik nire amaren ahotsa entzuten nuen:

- Nekane, Nekane, Nekane...

Bat-batean begiak itxi eta ireki nituenean nire ama aurre aurrean ikusi nuen eta esan zidan:

- Benga, Nekane, berandu iritsiko zarela ikastolara.

Orduan ni konturatu nintzen amets bat bakarrik izan zela.



Elefante presoa

Sergio Fuentes Urabayan

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Bazen behin elefante ama bat. Ama haurdun zegoen, zirkuko elefante famatua zen. Bere jabeak asko maite zuen. Hilabete batzuk pasa ondoren elefante oso oso txikia jaio zen. Zoritxarrez ama oso gaizki gelditu zen eta hil egin zen. Beraz, jabea oso triste jarri zen eta jaioberriarekin haserretu zen. Jabeak Merlin jarri zion izena.

Hiru urte pasatu ziren eta Merlin oso handia zegoen dagoeneko. Merlin beti makila batetara zegoen lotuta, eta ezin zuen ihes egin, gainera bere jabeak ez zuen inoiz ikustaldietara ateratzen, oraindik haserre baitzegoen. Merlinek ez zuen lagunik, eta oso bakarrik sentitzen zen. Animalia guztiek egiten zioten barre.

Egun batean Merlinek jabeari galdetu zion:

- Jauna, zergatik ez nauzu hemendik ateratzen?
- Zuk nire elefante onena hil baitzenuen –ihardetsi zion jabeak.
- Baina ez zen izan nire errua –segitu zuen Merlinek.
- Ezetz esan dut!!!
- Mesedez, nitaz fidatu, ondo egingo dut eta.
- Beno, baina gaizki egin ondoren ez zara gehiago aterako.

Hurrengo egunean Merlinek eguna zen. Zirkuko ordua ailegatu zen. Zirkua oso handia zen eta jendez gainezka zegoen. Dena oso ondo ateratzen ari zen. Merlin oso pozik zegoen eta jabea ere bai, baina bat-batean soka batetik pasatzen ari zenean... Soka apurtu egin zen eta dena hondatu zuen. Jabeak, desesperatua, makilan lotu zuen Merlin:

- Ez zara gehiago aterako, hemen geldituko zara betirako.

Orduan jabeak atea itxi, eta joan egin zen. Merlin oso triste geratu zen eta ihes egiten saiatu zen, baina makila handiegia zen. Merlin orain arte ez zen konturatu zein itsusia zen bere gela. Dena oso zikina eta kiratsa zegoen. Merlinek egun asko eman zituen sokatik tiraka makila apurtzeko, baina ez zuen apurtzen.

Egun batean kalabozo horretan tximu bat sartu zuen jabeak. Merlin eta tximua lagunak egin ziren. Tximuaren izena Markito zen. Merlin eta Markito lagunak egin ziren.

Markitok Merlin animatzen zuen ihes egiteko, baina Merlinek ezin zuen soka apurtu.

Urteak pasa ziren eta Merlin nazkatuta zegoen sokaz eta ez zen saiatzen ere. Markitok esaten zion:

- Saia zaitez oraingoan, orain oso handia eta indartsua zara eta (Markitok bazekien saiatzen bazen lortuko zuela baina Merlin ez zen saiatzen).

Egun batean jabeak Markito zeldatik atera zuen eta ez zen berriro sartu. Orduetik aurrera Merlin oso triste zegoen, ez zuen jaten ezer.

Eta azkenean bertan hil egin zen.

Ipui honekin erakusten dut zerbait lortu nahi baduzue ez zaretela inoiz errenditu behar lortu arte, bestela Merlini bezala gertatuko zaizue: ez duzue ezer lortuko.



Aintzane gaixorik

Julia Munárriz Antona

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Kaixo, ni Aintzane naiz eta hamahiru urte ditut. Ezin izango dut zuekin denbora luzean hitz egin, gaixo bainago.

Horrez gain etxean primeran nago.

Begira, nahi baldin baduzue, gaixorik nagoen egun batean etxean egiten dudana kontatuko dizuet. Hasteko, zuek baino lau ordu gehiago egiten dut lo. Altxatzerakoan aitak gosari ederra presatzen dit (ama lanean dagoenez aita da etxean dagoen bakarra). Gosaldu ondoren bete-bete eginda geratzen naizenez, sofa gainean etzan egiten naiz eta telebista ikusten dut. Egia esan, hamabiak ingururaino ez dituzte oso gauza dibertigarriak botatzen, baina institutua baino hobeto nik uste edozer gauza.

Ordu biak aldera, Mikel klaseko laguna nire etxerako lanekin etortzen da eta nik uste dut hori andereñoari pilota egiteko egiten duela.

Etxerako lanak egin aurretik, bazkaldu egiten dut eta segituan siesta.

Hau bizitza ona, bina honetan gauza txar bat dago, hau laster amaituko dela.

Siesta ondoren logelara sartu eta etxerako lanak egiten saiatzen naiz, eta beti bezala ere ez dut tutik ere ulertzen. Orduan klaseko norbaiti deitzen diot. Egia esan, ia beti berdinari deitzen diot, Mikeli, oso ikasle ona baita.

Oraingoz bost egun daramatzat gaixo eta ez dut uste gaixo nagoen zergatia esan dizuedanik; ba, orain kontatuko dizuet.

Lagunekin kaletik nembilela, txakur ikaragarri handiak, hurbildu zitzaidanean, koska egin zidan. Korrika hasi nintzen baina txakur madarikatu horrek harrapatu ninduen.

Hau edonori kontatzen diodan bakoitzean negarrez hasten naiz, eta, egia esan, oraindik ere kalerak bakarrik irteteak ikaragarriko beldurra ematen dit. Aurpegia era bat desitxuratuta utzi zidan.

Aurpegiko markak ez zaizkit inoiz kenduko eta ezta txakurrenganako daukadan beldurra ere.

Krema bat ematen dut markak hain nabariak ez izateko. Beno, agur esan behar dizuet afaltzeko ordua iritsi delako, eta gero lotara joan behar naizelako. Ondo pasa bihar institutuan eta goraintziak denei.



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera



Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Bertsos escritos”**

**Mago oso traketsa zara, dena gaizki
ateratzen zaizu**

Sarai Robles Vitas

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Doinua: Maritxu nora zoaz?

1) Nire laguna egin dut
erditik banatu
baina elkartzeko era
egin zait ahaztu
nahi badut gaixo hori
berriz ere batu
artxila murtxilakin
hobe dut saiatu

2) Esaten nengoela
banaiz ni trabatu
eta kidea egin zait
untxi bilakatu
ez dakit zer egin eta
niretzat dut hartu
azenarioak eman
eta asko maitatu



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Asteburua

Maite Uriarte Belzunegi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

- | | |
|--|---|
| 1) Gaur ostirala da eta bihar larunbata badaukat nik gogo prestatzeko tarta | 2) Tarta jango dut, eta gero jolastera azkenean aspertu eta danok etxera |
| 3) Biharamonea da igande goizea eta niri egin zait pixka bat luzea | 4) Arratsaldean berriz nago nekatua asteburua joan eta akabo kantua |



Aurtengo bidaia

Amets Laskibar Murua

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Doinua: Triste bizi naiz eta...

- | | |
|---|---|
| 1) Afrikara joan naiz ondo pasatzera hori aprobetxatu eta lo egitera nire amak nahi du joan kultura ikustera eta gainera goaz lehengusuen etxera | 2) Afrikan nengoela egin mila lagun eta bat bera ere ez dago alargun bata edo bestea da oso ezagun dena festa batekin ospatu dezagun |
| 3) Ordua iritsi da buelatzeko etxera aurtengo gure oporrak ongi egon dira eta orain bagoaz azken afarira hurrengoan beraiek etorriko dira | |



XVIII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Nola liteke hau gertatzea

Asier Ieregi Aranburu

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Mendizalea:

- 1) Nola liteke hau gertatzea ez dago eskubiderik. Mendian nengoela hanka bihurtu ez dute egin kasurik. Baserritar bat kasu egin gabe pasatu egin da aurretik. Noizbait ikusi egin duzue zuek halako zerririk?

Baserritarra:

- 2) Xuxurlaren bat entzun dut ba nik haize bolada izango zen. Mendira noa ni oso pozik txoritxoren bat entzuten. Belarri fina izanda ere ez dut arraza ezagutzen. Oso bitxia iruditu arren zegoen nire amari deitzen.

Azeria:

- 3) Nik ikusi dut zer gertatu den eta ez da gertatzen beti. Baserritarra zihoan trankil alai, pozik eta ederki. Bestea berriz oinazez zegoen oihukatuz asko noski. Grazia handirik ez zion egingo gorra bazela baleki.



Aurkibidea / Índice

Ipuinak / Cuentos

| SARIA / PREMIO | EGILEA / AUTOR | ORR. / PÁG. |
|--|---------------------------|-------------|
| 3. maila LH/3° E.P. | | |
| 1. saria Sumendiko dragoia | Josebko Larrayoz Olagüe | 5 |
| 1. saria Behi argia | Aritz Arteta Baños | 5 |
| 1. saria Txantxangorriaren negua | Iñaki Martínez Azpiroz | 6 |
| 2. saria Neguko neska | Iranzu Alzueta Ayerra | 7 |
| 2. saria Ilargira bidaia | Amaia Silva Torán | 7 |
| 2. saria Nekazari gorra | Maialen Irisarri Ezkurra | 8 |
| 4. maila LH/4° E.P. | | |
| 1. saria Franen arazoa | Garazi Retegi Goñi | 9 |
| 1. saria Bartolo txakur bakartia | Oihane Lasheras Zapata | 9 |
| 1. saria Lili eta Bobi bere lapitza | Maite Urria Gorospe | 10 |
| 2. saria Arranoa eta saguzarra | Ainhoa Pérez Uterga | 11 |
| 2. saria Satu-Saturno | Neskutz Amondarain Agirre | 12 |
| 2. saria Maria marigorringoa | Ainara Balen Fuentes | 12 |
| 5. maila LH/5° E.P. | | |
| 1. saria Amets bat | Ane Ardaiz Arriazu | 13 |
| 1. saria Barazkipolis | Julen Martínez Azpiroz | 14 |
| 2. saria Duk ahatea | Ainara Ieregi Aranburu | 15 |
| 2. saria Dena dantzan | Ainara Leceta Marañón | 17 |
| 6. maila LH/6° E.P. | | |
| 1. saria Julen eta bere lagunak basoan galduta | Jokin Jiménez Eneriz | 18 |
| 1. saria Castri inspektorearen kasua | Asier Izkue Daroca | 18 |
| 2. saria Natura zaintzen ez zuen gizona | Asier Garmendia Berango | 19 |
| 2. saria Rimeik familiaren maldizioa | Ainhoa Nagore Hermoso | 20 |
| I. DBH/1° E.S.O. | | |
| 1. saria Kontrako oparia | Ana Pascual Zuasti | 21 |
| 1. saria 3 lagun Saharan | Aritz Lasarte Cia | 22 |
| 1. saria Marinela baten istorioa | Markel Videgáin Barberena | 23 |
| 2. saria Klima misterioa | Miguel Retegi Casajús | 24 |
| 2. saria Egun batez, beste pertsona bat izan! | Ainara Maestro Aniz | 25 |
| 2. saria Agure azkarra | Ander Cambra Gainza | 26 |
| 2. DBH/2° E.S.O. | | |
| 1. saria Nire harana | Odei Sagardoi Soria | 27 |
| 1. saria Ate magikoa | Nekane Goñi García | 28 |
| 2. saria Elefante preso | Sergio Fuentes Urabayen | 30 |
| 2. saria Aintzane gaixorik | Julia Munárriz Antona | 31 |

Bertso paperak / Bertsos escritos

| SARIA / PREMIO | EGILEA / AUTOR | ORR. / PÁG. |
|--|-------------------------|-------------|
| 5. maila LH/5° E.P. | | |
| 1. saria Mago oso traketsa zara, dena gaziki ateratzen zaizu | Sarai Robles Vitas | 33 |
| 6. maila LH/6° E.P. | | |
| 1. saria Asteburua | Maite Uriarte Belzunegi | 34 |
| I. DBH/1° E.S.O. | | |
| 1. saria Aurtengo bidaia | Amets Laskibar Murua | 35 |
| 1. saria Nola liteke hau gertatzea | Asier Ieregi Aranburu | 36 |





AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera